

elkarberri

61

EFEOK
Gobernu
Batzar berria
aukeratu du

Colegio Oficial
de Fisioterapeutas
del País Vasco



Euskadiko
Fisioterapeuten
Elkargo Ofiziala

julio - septiembre 2018 / Ejemplar gratuito
2018ko uztaila - iraila / Doako alea

Depósito Legal: BI-945-05 - ISSN 2444-4065

próximos cursos

datozen ikastaroak



Valoración y Tratamiento de la Región Cervical y su Relación Cráneo-Mandibular (ATM)

irailaren 7 - Bilbao - 7 de septiembre

Fisioterapia Obstétrica: Embarazo, Parto Y Postparto. 2ª Edición

irailaren 14 - Bilbao - 14 de septiembre



Inducción Miofascial Nivel II Seminario III

urriaren 19 - Bilbao - 19 de octubre



Fisioterapia Vestibular

azaroaren 17 - Bilbao - 17 de noviembre



Spine & Control: Abordaje Clínico del Dolor Lumbar

azaroaren 23 - Bilbao - 23 de noviembre



El COFPV se reserva el derecho de poder modificar el lugar de celebración del curso o alguna fecha, debido a necesidades de los docentes y razones ajenas a la organización.

Las plazas se otorgarán por riguroso orden de inscripción a los cursos, debiéndose hacer a través de la web oficial (www.cofpv.org)

EFEOk ikastaroaren lekua edo data aldatzeko eskubideari eusten dio, irakasleen beharizanak eta antolatzaileekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko direla.

Ikastaroetako inskribapenaren ordenagatik bananduko dira plazaak, webgunearen bidez egin beharrekoa (www.cofpv.eus)



Iban Arrien
Presidente del COFPV
EFEO-ko Presidentea

editorial editoriala

tener información relevante y actualizada de la normativa vigente que nos afecta, asesoramiento especializado en materias muy diversas, sino también realizar todo tipo de actuaciones administrativas. Todo ello nos permite que los fisioterapeutas seamos más competitivos y trabajemos con total garantía de seguridad.

Colegio se hace contigo, con tus inquietudes, sugerencias y recomendaciones.

En esta nueva etapa intentaremos reforzar todos los servicios que se vienen prestando y aumentar más si es posible los mismos con nuevas actuaciones e intentar seguir profesionalizando la Institución.

Esta nueva Junta de Gobierno se va a involucrar al máximo por intentar seguir mejorando nuestra profesión, y para ello necesitamos una comunicación directa con todos vosotros/as. Requerimos de vuestra colaboración para mejorar las futuras actuaciones y reiteramos la necesidad de vuestra participación para fortalecer y enriquecer este nuevo proyecto común. Vuestras aportaciones nos ayudarán a conseguir nuevos logros.

Quiero también reconocer y agradecer a los miembros de la Junta saliente su trabajo y dedicación durante su etapa al frente del Colegio. Muchas gracias a todos/as. La nueva Junta de Gobierno os agradece enormemente la confianza depositada en ella y asume esta nueva responsabilidad y compromiso con total ilusión y humildad.

Recibir un afectuoso saludo de mi parte

Gobernu Batzar berri honek bete-betean jardungo du gure lanbidea hobetzen jarraitzeko, eta, horretarako, zuzeneko komunikazioa izan behar dugu zuokin guztiokin. Zuen laguntza behar dugu etorkizuneko jarduerak hobetzeko, eta, berriro diogu, zuen parte-hartzea behar dugu denon arteko proiektu berri hau indartzeko eta aberasteko. Zuen ekarpenei esker, aurrera egin ahal izango dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiet orain arte Batzarrean aritu diren kideei, Elkargoaren buruan eman duten denbora honetan egindako lanarengatik eta ahaleginarengatik. Eskerrik asko guztiok. Gobernu Batzar berriak bihotzez eskertzen dizue batzarrean jarritako konfiantza, eta ilusio handiz eta umiltasun osoz hartzen du bere gain ardura eta konpromiso hau.

Jaso ezazue agur bero bat.

Bienvenida

Estimados/as colegiados/as y queridos compañeros/as:

Hace pocos días asumí el reto de liderar otra vez la Presidencia de esta Institución junto con un equipo de grandes y experimentados profesionales con la máxima ilusión de intentar contribuir a seguir mejorando nuestra profesión.

Desde el Colegio se ha realizado un trabajo constante durante todos estos años, consiguiendo muchos y diversos hitos profesionales, acuerdos y convenios de colaboración, etc, que permiten a todos/as los/as colegiados/as no solo

Ongi etorri

Elkargokide eta lankide agurgarriak:

Duela egun gutxi batzuk, neure gain hartu nuen beste profesional handi eta eskarmentudun batzuekin batera erakunde honetako presidentetza gidatzeko erronka, gure lanbidea hobetzen saiatzeko gogo biziz.

Elkargoa etengabe aritu da lanean urteotan guztietan, eta denetarik lorpen profesional, akordio eta lankidetzaz hitzarmen ugari egin ditu. Gaur egun, elkargokide guztiok eskura dute guri eragiten digun indarreko araudiari buruzko informazio garrantzitsu eta eguneratua, eta askotariko arloen gaineko aholkularitza espezializatua jaso dezakete; horrez gain, mota guztietako administrazio-jarduketak egin ahal dituzte. Horri esker, fisioterapeutok lehiakorragoak gara, eta erabateko segurtasun-bermearekin lan egiten dugu. Bi urte hauetan, Elkargoa eraldatzen ari da,

Durante los dos últimos años el Colegio viene abordando un proceso de transformación para atender cada vez mejor vuestras necesidades y exigencias (compra de sede social, incorporación de nuevos profesionales, etc...) además de ofrecer una atención cada día más cercana y personalizada. Nuestro objetivo sigue siendo servirlos con la calidad, cercanía, seguridad y profesionalidad que merecéis. Ese es nuestro principal compromiso.

Somos un Colegio más moderno, activo, dinámico, amable y emprendedor, que tiene un gran potencial, la fuerza de las personas que lo integramos y trabajamos en él y para él. Estamos dispuestos a dar un gran salto hacia delante para ganar el futuro, con nuevos proyectos, con nuevas ideas para mejorar la Fisioterapia. Este

alde batetik zuen behar eta eskakizunei hobeto erantzuteko (egoitza soziala erosi dugu, profesional berriak hartu ditugu...) eta bestetik egunez egun arreta hurbilago eta pertsonalizatuagoa emateko. Gure helburua, oraindik ere, merezi duzuen kalitatearekin, hurbiltasunarekin, segurtasunarekin eta profesionaltasunarekin jardutea da. Horixe da gure konpromiso nagusia.

Elkargo modernoagoa gara, aktiboagoa, dinamikoagoa, adeitsuagoa eta ekintzaileagoa, eta izugarriko ahalmena dugu: elkargoa osatzen dugun eta elkargoan eta elkargoarentzat lan egiten dugun guztion indarra. Elkargo honek bat egiten du zurekin, zure kezka, iradokizun eta gomendioekin.

Etap berri honetan, ahalegina egingo dugu ematen ditugun zerbitzu guztiak indartzeko, beste lan batzuk eginez zerbitzuok are gehiago zabaltzeko eta erakunde oraindik eta gehiago profesionalizatuzko.

sumario

aurkibidea

2

cursos
ikastaroak

3

editorial
editoriala

4

noticias
berriak

12

formación
prestakuntza

14

artículo
artikuloa

20

asesoría jurídica
aholkularitza juridikoa

22

anuncios
iragarkiak

26

colegiados
elkargokide

27

biblioteca
liburutegia

Presidencia y Dirección Lehendakaritza eta Zuzendaritza
Iban Arrien Celaya

Coordinación Koordinazioa:

Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo

Realización y Maquetación Gauzatea eta Maketazioa

J&J Creativos

Fotografía Argazkigintza

ORO

Edita Argitalpena

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Publicación trimestral Hiruhilabeteko argitalpena

2.920 ejemplares

Queda prohibida la reproducción parcial o total de los contenidos publicados en este ejemplar sin autorización expresa escrita de la Junta de Gobierno del COFPV.

Elkarberri y el COFPV no se hacen responsables del contenido e imágenes de los anuncios publicitarios, así como de los contenidos de los artículos publicados, ya que se corresponden con la opinión de sus autores.

Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe. Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.



Gobernu Batzar berrirako hauteskundeak

Joan den apirilaren 16an EFEOko Gobernu Batzarra osatzeko hauteskundeak egin ziren, eta hautagaitza bakarra baino ez zen aurkeztu.

Hori dela eta, Elkargoaren estatutuen 46 b) artikularekin bat etorritz, apirilaren 27an amaitutzat eman zen hauteskunde-epaia, ez baitzegoen beste hautagaitzarik. Hortaz, hautagaitza bakarreko kideek osatu zuten Gobernu Batzarra, eta, halatan, amaitutzat eman zen hauteskunde-prozesua.

Datozen lau urteotan, honako hauek izango dira Elkargoko Gobernu Batzarreko kideak eta karguak:



**IBAN
ARRIEN**
presidentea



**JUNE
RUIZ**
presidenteordea



**ROBERTO
ROMERO**
idazkaria



**EDURNE
ANDUEZA**
diruzaina



**IÑIGO
ARRIZABALAGA**
1. batzordekidea



**LEIRE
PEÑA**
2. batzordekidea



**EDORTA
ANSOLEAGA**
3. batzordekidea



**JON
HERRERO**
4. batzordekidea

Idazketa Kontseilua

Elkargoak aurrekontuaren % 0,7 bideratu du proiektu solidarioetarako

EFEOk esparru solidarioko partida bat sartu du, aurrekontu orokorraren % 0,7koa, baliabiderik ez duten edo gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dauden Euskadiko nahiz mundu osoko pertsonak babestea helburu duten proiektu soziosanitarioak diruz laguntzeko, betiere fisioterapiaren arloarekin lotura badute.

Horrela, arriskuan dauden herritarren garapen soziosanitarioarekin

lotutako proiektu humanitarioetan modu altruistan esku hartzen duten fisioterapeuta elkargokideen partehartzea sustatu eta diruz lagundu nahi da.

Interesdunek lankidetzeta-eskaera justifikatu beharko dute, eta behar bezala egiaztatu beharko dute bai jardueraren garapena bai proiektu humanitarioaz arduratuko den erakundea edo elkarte.

Beka hori formalizatzeko informazio guztia elkargoaren web orriko intraneten eskura daiteke.

Dokumentazio osoa bete eta cofpv@cofpv.org helbidera bidali behar duzue, mezuaren gaian BECA PROYECTOS SOLIDARIOS jarrita

Idazketa Kontseilua





Foro de Colegios Profesionales Sanitarios de Bizkaia

Bizkaiko Osasun Elkargo Profesionalen Foroa

Iban Arrien, Bizkaiko Osasun Elkargo Profesionalen Foroko Presidente berria

Joan den astelehenean, ekainak 25 EFEOko presidente Iban Arrien Bizkaiko Osasun Elkargo Profesionalen Foroko presidente izendatu zuten. Foro profesional horretan etengabe parte hartu izan dugu sortu zenez geroztik, 2010eko martxotik, funtsezko hiru helburu hauekin:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta sanitarioaren ikuspegi integrala eta integratzailea sustatzea eta garatzea.
- Guztien intereseko gai soziosanitarioak eta interrelazio profesionalarekin lotutakoak partekatzeko topagune eta eztabaida-gune ofiziala izatea.
- Gizarteari irizpide sanitarioetan oinarritutako mezuak helaraztea.

Honako erakunde hauek osatzen dute foroa alfabetoaren hurrenkeran :

- Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofiziala
- Bizkaiko Erizainen Elkargo Ofiziala
- Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofiziala
- Bizkaiko Haginlarien Elkargo Ofiziala
- Bizkaiko Medikuen Elkargoa
- Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofiziala
- Euskadiko Biologoaren Elkargoa
- Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
- Euskadiko Logopedaren Elkargoa
- Euskadiko Optikari-Optometristen Elkargo Ofiziala
- Euskadiko Podologoaren Elkargo Ofiziala
- Euskadiko Terapeuta Okupazionalen Elkargo Ofiziala
- Euskal Autonomia Erkidegoko Dietista Nutrizionisten Elkargoa

Foroarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, deitu Elkargoaren 944 020 155 telefono-zenbakira edo idatzi cofpv@cofpv.org helbide elektronikora.

Idazketa Kontseilua

Osakidetzaren gorako errekurtsioa ezeste

Apirilaren 26an, Osakidetzaren Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren ezezko erantzuna jaso genuen EFEOk abenduaren 21ean Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 10eko 1400/2017 Ebazpenaren aurka jarritako gorako errekurtsioari dagokionez. Ebazpen horren bitartez, osasun-diplomadunen talde profesionalaren

lekualdatze-lehiaketa bat deitu zen, osasun-zerbitzuetako erakundeetarako norakoarekin.

Erantzun horren jakinarazpena eta ezezko horren azalpenak elkargoaren web orrian eskura daitezke, Intraneteko jakinarazpen ofizialen atalean (maiatzak 21).

Erakunde honek adierazi nahi du ez dagoela ados eta harritu egin duela Osakidetzak hartutako ebazpenak.

Idazketa Kontseilua

Aitex-ek egin dituen ikerketen arabera ez dago cito-toxikotasun arrastorik, ez-eta azaleko sumindurarik ere*

Merkatuko Benda Neuromuskularrik Orekatuena

TEMTEX® porositate handiko* benda neuromuskularra da, azalak osasuntsu irauteko ezinbesteko ezaugarria

Elastikotasuna da TEMTEX® Kinesiology Tape-ren ezaugarri nagusietako bat, % 150-160 da



TEMTEX® lehen mailako osasun produktua gisa sailkatuta dago.

* Aitex zuntz teknologikoen institutuak ziurtatutako datuak





Jose Miguel Amostegui Europako Parlamentuan

Ekainaren 25ean (astelehenean) eta 26an (asteartean), Jose Miguel Amostegui Europako Parlamentuan parte hartu zuen, ENDOMETRIOSIARI buruzko Batzorde batean. Han, Europako parlamentari Lola Sanchezek ENDOMETRIOSIAREN arloko Espainiako hainbat elkarteren eta Aditu Batzorde baten arteko topaketa babestu zuen. Aditu Batzordea Francisco Carmonak (Bartzelonako Clinic Ospitaleko Ginekologiako burua) eta Jose Miguel Amostegui (SEFIPen burua eta patologia horren tratamenduan aditua) osatu zuten.

Endometriosiak ugalketa-adinean dauden emakumeen % 15-20ri eragiten dio, eta kaltetutako emakumeei eguneroko bizitzako jardueretan muga eta ezgaitasun funtzional handia eragiten die.

Jatorri zehatza ezagutzen ez den arren, kausa, ohikoagotzat hartua,

hilerokoaren isuri alderantzikua da, hau da, hilerokoaren fluxua, baginatik kanpoaldera bota ordez, haren zati bat tronpen bidez isurtzen da barrunbe peritonealaren barnera, eta, horrela, uteroaren, obarioen, tronpen, puxikaren eta batzuetan barrunbe abdominalaren edo emakumearen organismoaren beste zati batzuen kanpoaldean ezartzen da.

Endometriosiak min handiak eragiten ditu emakumeak hilerokoa izango duenean edo hilerokoa duenean, baita sexu-harremanetan ere; gainera, gernu-sistemari eragiten dio, hesteetako nahasmenduak sortzen ditu eta, oro har, min pelbiko kronikoa eragiten du. Halaber, antzutasuna edo bigarren mailako ugalketa-ezintasun funtzionala sor dezake.

Patologia honi aplikatzen zaion tratamendua mina arintzera eta ugalketa-ezintasuna/antzutasuna saihestera bideratuta dago. Normalean,

tratamendu kirurgikoa baliatzen da foku endometriosiko handienak kentzeko, baita tratamendu mediko/hormonala eta fisioterapia espezializatua ere.

Fisioterapiak endometriosisia "sendatzen" ez badu ere, erremedio aringarria da, eta gaixoen sintomatologia hein handian hobetzen du, bai mina bai hantura, eta, batzuetan, baita ugaltzeko ezintasuna ere.

Endometriosiaren tratamenduan, fisioterapia-teknikak honako hauek dira: eskuzko terapia eta irrati-maiztasuna / Indiba funtsean eta fisioterapia orokortuko teknika gehigarriak, hala nola paziente bakoitzari egokitutako ariketak. Tratamenduek espezializazioa behar dutenez eta gauzatzeko garestiak direnez, oro har osasun publikoak ez ditu eskaintzen Espainian.

Parlamentu Batzorde horretan ordezkaturata egon dira emakumeen

elkarte guztiak, adituekin batera, eta eskatu dute aitortzeko emakumeei eragiten dien gaixotasun horren garrantzia, eta hura arintzeko erantzun asistentziala eta terapeutikoa emateko. Euskadiko Ordezkaritzatik, ENDOEUSKADI, Anabel Dorado idazkaria eta zuzendaritzako kideak izan ziren.

Jose Miguel Amostegui



ENDOMETRIOSIAREN arloko Espainiako elkarteetako emakume taldeen ordezkariak, adituekin batera, eta erdian, Europako parlamentari LOLA SÁNCHEZ.

Profisio

Duela zenbait urtetik oposizioak prestatzeko gaiak eguneratzeko premia ikusi da; izan ere, merkatuan dagoen eskaintza ez dago eguneratuta. EFEOren jarrera partekatu dute hainbat elkargokidek, eta teknologia berriekin bat datorren prestakuntza eskatu dute, ordutegien malgutasunera egokitzen dena.

Testuinguru horretan sartzen da jarraian azalduko den proposamena. EFEOk ahal duen guztia egin du duela zenbait aste egindako Osakidetzako oposiziorako amaituta eta eraginkor egoteko, baina argialetxearen epeen kudeaketa-arrazoiengatik, ezinezkoa izan da. Nolanahi ere, proposamenari eutsi egingo zaio hurrengo deialdietarako.

Hainbat bilera egin ondoren, EFEOren eta Panamericana argialetxearen arteko lankidetzaz hitzarmen bat egin dugu, PROFISIO on gauzatu dena. Prestakuntza-programa hori % 100 online eskaintzen da, eta fisioterapeutari edozein autonomia-erkidegotan deitutako fisioterapia-oposizioak prestatzeko aukera ematen dio.

Gehitu behar da Murtziako Unibertsitate Katolikoak PROFISIO akreditatu duela "Actualización en Fisioterapia y Legislación Sanitaria" izeneko masterreko berezko tituluan, 60 ECTS krediturekin.

Hona hemen PROFISIO plataformaren ezaugarri batzuk:

- Gaiak eguneratuta daude eta modu pertsonalizatuan inprima daitezke, ikasle bakoitzak azpimarratutakoa barne.
- Gaiarekin lotutako galdera ofizialetatik ateratako aurreko probetako 800 galdera baino gehiago ditu. Gainera, simulakroak eta entrenamendu mugagabeak ditu. Horiek guztiak azalpenekin eta gaietako edukiarekin zuzenean lotuta daude.
- Metodologia ikasle bakoitzaren ikaskuntza-erritmora egokitzen da; izan ere, egutegi pertsonalizatua sortzen da eta hura da une oro ikasteko gida.
- Online tutoretza pertsonalizatua eskaintzen da eta, horri esker, sortutako zalantzak 24/48 orduan argitzen dira. Tutore horiek Fisioterapiaren arloan kualifikatutako irakasleak dira.

Hona hemen PROFISIOren interesa duen pertsonen jarraitu beharreko urratsak:

- Orain matrikulatuko den elkargokidea plataforman sar daiteke, baina oraindik ezin ditu gai guztiak ikusi, une honetan gaiak pixkanaka igotzen ari baitira. Zintzilikatuta dauden gaiak ikasten joan daitezke (soilik testua) eta irailean (une horretan hasiko da benetan ikastaroa) aktibatuko da egutegia ikasketametodologiarekin, elkarrekin lotutako LEPEko galderekin,

entrenamenduak egiteko aukerarekin...

- Ebaluazioa honela egingo da: programako azken 4 azterketen (simulakroak) emaitzak hartuko dira kontuan; horietako bakoitzak LEP azterketa egitea simulatuko du. Amaierako kalifikazioa 4 azterketen batez bestekoa eginez lortuko da eta eskatuko da gutxienez galderen % 50 gaintzea ikastaroa gaintutzat hartzeko.
- Plataforman estatu-mailako makro LEPa egin arte sartu ahal izango da (2019ko otsaila). Berezko titulua igortzeko izapideak 2019ko maiatzean hasiko dira, unibertsitateak orduan ixten baititu aktak; beraz, titulu fisikoa 2019ko ekainuztailean jasoko da.

Azkenik, jakinarazi behar da Elkargoaren web orrian banner bat jarri dela, eta haren bitartez informazio hori eskuratu eta areagotu daitekeela. Gainera, EFEOko elkargokideak izateagatik aplikatzen diren deskontuen berri emango da.

Idazketa Kontseilua

PROFISIO[®]
OPE™

EDITORIAL MEDICA
panamericana

PREPARA CON ÉXITO LA OPOSICIÓN DE FISIOTERAPIA

¡ADEMÁS OBTÉN EL TÍTULO PROPIO DE MÁSTER!

10% dto. ADICIONAL
SOBRE OFERTA WEB

CON CÓDIGO PROMOCIONAL FACILITADO POR EL COLEGIO

MATRICÚLATE >>

60 ECTS

UCAM
UNIVERSIDAD
CATÓLICA DE MADRID



Batzar Nagusia

2017ko kontuen balantzea aho batez onetsi zen

Apirilaren 14an, Vitoria-Gasteizko Santiago Ospitaleko ekitaldi-aretoan egin zen 2018ko lehenengo Batzar Nagusia. Bileran horretan, Presidentetzak, Diruzaintzak, Aholkularitza Juridikoak eta batzorde bakoitzaren arduradunek 2017an eginiko jardueren eta kudeaketan emaitzen berri eman zuten.



Presidentetza

EFEOren presidente Jon Herrero jakinarazi zuen ez duela aurtengo hauteskundeetan berriz hautatzeko hautagaitzarik aurkeztuko.

Ondoren, lanbidearen alderdi ugari azaldu zituen, besteak beste, kirol-lanbideen lege-proiektuarekin lotuta garatutako ekintzak, Erizaintzako Kontseilu Nagusiak igorritako ebazpen kezkarriak eta fisioterapeuten kolektiboa Osakidetza Lehen Arretako Taldeetan sartzeko proiektua (elkargo honen babes osoa dauka) azpimarratu zituen.

Aholkularitza Juridikoa

EFEOko idazkari Roberto Romerok garatutako jarduera garrantzitsuenak laburtu zituen, eta adierazi zuen Aholkularitza Juridikoak zaintza-lanak egiten, kontrola eramaten, babesa ematen eta informatzen jarraituko duela, besteak beste. Azpimarratu da eskaera askoz gehiago egin zaizkiola informazio-zerbitzuari fisioterapeuten jardunari eragiten dioten alderdiekin lotuta.

Era berean, Elkargoko Severino Setien aholkulari juridikoak eginiko lana aipatu da bereziki.



Komunikazio, Publizitate eta Protokolo Batzordea.

Komunikazio Batzordeko presidenteorde eta arduradun June Ruizek batzordeak 2017an egindako jarduerak aurkeztu zituen; azken urteetan garatzen ari diren eta lanbidearen ikusgarritasunerako emaitza oso onak ematen ari diren komunikazio-proiektuak azpimarratu zituen.



Jarduera horien artean, nabarmentzekoa da "12 hilabete, 12 osasun-aholku" urteko kanpaina, Madril, Katalunia, Nafarroa, Galizia, Andaluzia, Valentzia eta Kantabriako gure homologoekin batera egingina. Kanpaina horren helburua da herritarrei ezagutzera ematea eta haiek informatzea eta kontzientziaztea Fisioterapiaren abantaileri buruz. Fisioterapeuta guztiak animatzen ditu mezuak hedatzera, baita komunikabideak ere, irratian, telebistan, prentsan, sare sozialetan eta abar egindako kanpaineekin.

Era berean, azpimarratu behar da Fisioterapiaren Munduko Eguna ospatuko dela, zeina urtetik urtera gero eta aberasgarriagoa baita hala fisioterapeudentzat nola herritarrentzat. Jarduera hori ezingo litzateke aurrera atera EFEOko boluntario elkargokideen laguntzagatik ez balitz.

Azkenik, June Ruizek azpimarratu zuen garrantzitsua dela sare sozialen erabilera arduratsuen aldeko apustua egitea eta sustatzea, profil korporatiboetarako harpidetzak areagotzea gonbidatuz eta animatuz.

Intrusismo Batzordea

Jarduera azpimarragarrienak aipatu ondoren, adierazi zen lan egiten jarraituko dela herritarrak sentsibilizatzeko zenbait kanpainaren bidez, lanbideari duintasuna emateko eta Fisioterapiaren arloko intrusismo profesionalari aurre egiteko helburuz.

Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerkuntza Batzordea

Prestakuntza Batzordeak azken batzarretik egindako jardueren berri eman zuen, baita -oraingoz- 2018an garatzeko prestakuntza-proiektuen berri ere.

Era berean, eskaera-faltagatik garatu ezin izan ziren jarduerak zerrendatu ziren.

Azkenik, online prestakuntza-proposamenak adierazi ziren; horien artean, oposizioekin lotutakoa prest dago.

Diruzaintza

EFEOk diruzain Eburne Anduezak 2017ko kontuen balantze xehakatuak aurkeztu zuen.

Bozketa egin ondoren, aho batez onetsi ziren.

Azkenik, Diruzaintzak Elkargoaren egoera ekonomikoaren berri eman zuen; biltzarra egin zen egunean elkargoaren kontuetan erabilgarri zegoen saldoa laburtu zuen.



Biltzarra amaitzeko, eta eskaera eta galderen atalean, zenbait kontsulta egin ziren, eta EFEOk ordezkariek hitzeman zuten kontsultatuko zutela eta konpontzen saiatuko zirela.

Azpimarratu behar da adierazi eta eztabaidatu zela Fisioterapiaren berezko lanketekin eta prestakuntza- eskaintza erizaintzako langileak bideratzen ari direla (haiek garatzen ez dituztenean); kezka hori aurreko biltzarretan ere jaso da.

Horri dagokionez, Gobernu Batzordeak saihesteko segurtasunez arazo horri aurre egiteko zailtasun juridikoak daudela partekatu zuen.

Biltzarra amaitzeko, Roberto Romerok, Gobernu Batzordearen izenean, Jon Herrerok EFEOn presidente gisa egindako lana aitortzeko eskatu zuen.

Azkenik, EFEOk eskerrak eman nahi dizkie biltzarrera joan ziren guztiei. Eta, bide batez, elkargoaren proposamenetan modu aktiboan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Idazketa Kontseilua





Inducción Miofascial nivel II



Profesor- Irakaslea: Andrej Pilat

Fechas - Datak: 7, 8, 9 y 10 de abril de 2018 - Seminario 1

Escuela de la Espalda: Pilates Terapéutico, Hipopresivos y Entrenamiento Funcional



Profesor- Irakaslea: Pablo Hernández

Fechas - Datak: 21 y 22 de abril de 2018 - Seminario 2

Método Terapéutico de Fisioterapia Respiratoria Pediátrica



Profesora- Irakaslea: María de la Paz Gómez

Fechas - Datak: 11, 12 y 13 de mayo de 2018



Máster Propio

Osteopatía en las Disfunciones Neuromusculoesqueléticas

Titulación: Universidad Pontificia de Salamanca

SEDES EN DONOSTIA Y BARAKALDO

www.escuelaosteopatiamadrid.com

MÁS INFORMACIÓN



91 883 39 10

centralosteopatia@escuelaosteopatiamadrid.com



UNIVERSIDAD
PONTIFICIA
DE SALAMANCA



Salus
Infirmorum

SEFO
Scientific European
Federation of Osteopaths



**EOM
España**

Arantza tibialak askatzeari buruzko kasu klinikoa eta ziztada lehorrarekin tratatzea

Raquel Collado Ávila - 1.241. elkargo-kidea COFCV
Verónica Sánchez Otero - 736. elkargo-kidea COFPV

Sarrera

46 urteko pazientea, 2003an ebakuntza egin eskuin belaunean, eskiatzen erori ondoren arantza tibialak askatzeagatik. Duela bi urtetik mugikortasuna galdu du eta mina daukala dio. OTA bat egin zaio, eta belauneko subluzazio bat dagoela ikusi da. Gainera ENM bat egin da, eta ikusi da aurreko lotailu gurutzatua partzialki hautsia duela eta kondromalazia patelarra eta barneko kondiloa duela, I. mailakoa. X-izpiek osteoporosia duela erakutsi dute.

2013an, traumatologoak belauneko artroskopia bat eta flexio behartua egitea erabaki zuen anestesiazapean, atxikidurak askatzeko. Ebakuntzaondoa gertakaririk gabekoa izan zen. Pazienteak errehabilitazio-zerbitzuarekin hitzordua izan zuen 10 egunetara eta 10 egun geroago hasi zen fisioterapia-tratamenduarekin.

Azterketa

Ebakuntzaren orbainek itxura ona dute, nekez daude atxikita.

Pazienteak mugikortasun mugatu handia du, luzatuta -30°-ko ROMarekin eta belauna flexionatuta % 95eko ROMarekin.

Patelak atxikidura arin bat du, alboko mugikortasun handiagoarekin.

Minaren EVA eskalan 8 puntu ditu errehabilitazioa hasterakoan, eta mina belaunaren aurrealdean eta atzealdean dauka.

Errehabilitazioa hasteko unean, makuluarekin ibiltzen da, eta belauna tolestuta eta herren ibiltzen da.

Halaber, beheko gorputz-adar osoko muskulaturan kako-puntuaren presentzia aztertu zen: koadrizepsak, iskiotibialak, hanka (bikiak, peroneoak...), eta aldakako muskuluak (gluteoak, piramidala, faszia lataren tenkatzailea...).

Pazientearen kezka nagusiak mina eta zurruntasuna ziren, batik bat goizean eta egunaren amaieran, nahikoa aktibo egon ondoren.

Belaunaren oroitzen anatomikoa

Belauneko artikulazioak funtzio bikoitza du: egonkortasuna ematen du estatikan gorputzaren pisuari eutsiz eta lagundu egiten du martxaren dinamikan flexio-luzapenarekin. Kasu honetan, azpimarratuko dugu grabitate-lerroa barneko arantzaren erditik igarotzen dela, eta puntu garrantzitsua da hori egonkortasunerako.

Belauna kondile motako giltzadura bat da, eta mugimendu handiak (flexioa/luzapena) eta txikiak (errotazioak) ditu. Zeharkako errotazio-translazio ardatza du eta ardatz bertikala, hankaren luzetara, eta giltzadura flexioan dagoenean, errotazio-mugimenduak ahalbidetzen ditu.

Nahiz eta, benetan, bi giltzaduraz hitz egin genezakeen:

Giltzadura femoropatelarra (errotuluaren atzealdean eta femurraren aurrealdeko aurpegi distalaren artean).

Femorotibiala (femurraren epifisi distalaren eta tibiaren epifisi proximalaren artean).

Jarraian, belaunaren egiturak azalduko ditugu labur-labur, gure pazientearen lesio mota azaltzeko.

Hiru hezurrek osatzen dute: femurra, tibia eta errotulua.

Femurreko epifisi distalak bi kondilo obalatu eta asimetriko ditu: barnekoa eta kanpokoak; barnekoa barrualderantz desbideratuta dago, eta giltzadura-azalera kanpokoak baino askoz ere handiagoa da. Bi kondiloak barrunbe interkondilea oso markatu batek bereizten ditu.

Kondiloek osatzen dute femurraren giltzadura-azalera, eta meniskoien bitartez, tibiaren goiko zatiarekin egiten dute giltzadura, barrunbe glenoideen bitartez; horiek barrunbe bat dute femurreko kondiloak hartzeko (konbexuak).

Bi barrunbe glenoideen artean, prominentzia batzuk daude, arantza tibialak, eta hor txertatzen dira lotailu gurutzatuak. Gainera, tibiaren aurretik goialderako zatian, tuberositate tibiala daukagu; hor txertatzen da tendoi errotulianoa.

Platertxo tibialak ez dira berdinak;

barnekoa konkaboa da, eta, kanpoko, berriz, konbexua, aurretik atzera. Periferian, lautu egiten dira, meniskoei euskarria emateko.

Meniskoek azalerak kongruenteagoak egiten dituzte. Barneko meniskoak C forma du, eta periferian lotzen zaio kapsulari eta barneko alboko lotailuari. Kanpoko meniskoak zirkulu oso bat egiten du ia-ia, eta barnekoari zeharkako lotailuaren bitartez lotzen zaio. Gainera, giltzadura-kapsulari lotzen zaio ia luzera osoan, atxikita dagoen muskulua tendoiaren eremuan izan ezik.

Errotulua luzapen-sisteman sartuta dago; izan ere, koadrizepsaren tendoi errotulianoak inguratzen du eta troklea femoralaren gainean irristatzen da.

Giltzadura-kapsulak, kondiloen inguruan txertatzen denak, barnean uzten du popliteoa (giltzadura artekoa). Zaku kapsularren hondo handia dago, belaunari mugimendu zabalak egitea ahalbidetzen diona. Kapsularen aurrealdeko zatian, tendoi errotulianoak ordezkatzen du. Atzealdea, berriz, aurretik kanporako eta atzetik barnerako lotailu gurutzatuak indartzen dute.

Belaunak lotailu gogorak ditu, eta oso garrantzitsuak dira biomekanika eta fisiologiarako. Nagusiak gurutzatuak eta albokideak dira.

Lotailu albokideek eta kanpoko eta barneko alboko lotailuek ematen diote alboko egonkortasuna belaunari; errefortzu kapsularrak dira. Belaunari dagokionez tibiaren alboko inklinazio-mugimenduak blokeatzen dituzte.

Aurreko lotailu gurutzatuak barneko errotazioa eta hiperluzapena mugatzen ditu. Gainera, tolestean, kondilo femoralekiko tibiaren aurreranzko mugimendua murrizten du. Arantza tibialaren aurretik barneranzko eremutik kanpoko kondilora doa. Barneko alboko lotailuaren perpendikularra da.

Atzetik barnerako lotailu gurutzatuak errotazioa kontrolatzen du, eta luzapenean, kondilo femoralekiko tibiaren atzealdeko mugimendua murrizten du. Arantza tibialaren atzaldetik barneko kondilora doa; kanpoko alboko lotailuaren

perpendikularra da.

Lotailu horiez gain, beste giltzaduren barneko eta kanpoko beste batzuk ere badaude, baina ez dira hain garrantzitsuak kasu honetarako.

Lesioaren deskribapena

Hau da gure pazienteak izan duen lesioa: arantza tibialen askatzea. Helduetan, lesio hori kasuen % 70ean aurreko lotailu gurutzatuko lesioarekin lotzen da, eta kasuen % 58an, berriz, aldeetako lotailuen lesioekin. Gure pazienteak aurreko lotailu gurutzatuko hauste partziala zuen, eta aldeetako lotailuek ez zuten inolako kalterik.

Helduak lesio hori jasan du traumatismo oso bortitz baten ondorioz; lotailuaren euskarri-egiturak nabarmen hondatu dira. Normalean, lesioaren mekanismoa balgo-indarra eta kanpoko errotazioa dira; horrez gain, hiperestentsiodun lesioetan edo belaunaren hiperflexioan ere ager daiteke.

Hainbat sailkapen daude; dena den, erabiliena Meyers eta McKeeverena da, gerora Zaricznyjek aldatuko zuena. I. erakoak desplazamendurik gabeko edo desplazamendu gutxiko hausteak dira; II. motakoak partzialki desplazatuak edo "giltzadura" eran desplazatuak dira; III. erakoak guztiz desplazatuak dira, kontaktu kortikalik gabeak; bukatzeko, IV. hausturak guztiz desplazatuak eta zati anitzekoak dira (1. irudia). Tratamendu kirurgikoa gomendatzen da 2 mm-tik gorako desplazamendua duten


II. motako hausturetan, III. motakoetan eta IV. motakoetan.

Ager daitekeen konplikazioetako bat, aurretik atzerako hondar-laxotasuna da, hausturaren erredukzioan eta finkatzean izandako galeraren ondorioz, arantza tibialaren altuera handiagoaren ondorioz edo aurreko lotailu gurutzatuan izandako lesio baten ondorioz. Horrez gain, luzatzeko gaitasuna galtzea eta ezegonkortasuna areagotzea ere ager daitezke.

Haustura mota hau erredukzio ireki eta barne-finkatze bidez tratatu daiteke, baita erredukzio eta finkatze artroskopiko bidez ere. Kontuan hartu beharra dago arantza tibialaren abulsiok askotan zati anitzekoak izaten direla edo hezur zati txiki bat bakarrik izaten dutela, eta, ondorioz, ezin izaten dela manipulatu. Hori dela eta, finkatzea asko zaildu daiteke. Esku artean dugun kasuan, artroskopia bidez tratatu genuen eta PDS bidez josi (iraupen luzeko joste xurgagarria).

Kako-puntu miofaszialak eta ziztada lehorra

Azterketan aipatu den moduan, gure pazienteak kako-puntuak zituen. Honela defini dezakegu kako-puntu miofasziala: muskulu eskeletikoaren banda tenkatu baten barruko foku hipernarritakorra; KPM mingarria da zapaltzean, eta min bereizgarria eragin dezake, baita mugimendu-disfuntzioa eta fenomeno autonomikoak ere. Halaber, KPMak




1. irudia: arantza tibialaren hausturen sailkapena, Meyers eta McKeever-en arabera, Zaricznyjek aldatuta.



bi talde hauetan sailka daitezke: KPM aktiboak, hau da, min espontanea, ahultasuna eta mugikortasun mugatua eragiten dutenak, eta KPM latenteak, minik eragin ez arren disfuntzioa dakartenak. Kasu batzuetan, KPM latenteek eragiten dute KPM aktiboek aktibo jarraitzea. Hauek dira KPMak diagnostikatzeko gomendatzen diren irizpideak: uki daitekeen banda tenkatu bat egotea, banda tenkatuaren nodulu bat sakatzean min lokal eskisitoa izatea (fokalitatea), pazienteak ohiko mina sentitzea nodulu sentikorra zapaltzean, guztiz luzatzeko mugimendua mugatuta egotea minaren ondorioz, eta espasmo lokalaren erantzuna ikusiz edo ukitez identifikatzea. Behaketazko bi irizpide horiek baieztatu egingo lukete diagnostikoa.

Tratatzeo teknikei dagokienez, teknika ez inbaditzaileak (konpresioa, Lewiten erlaxazio postisometrikoa, esprai bidezko luzatzea eta abar) eta inbaditzaileak daude. Teknika inbaditzaileak erabilienean ziztada lehorra da, eta hori azalekoa edo sakona izan daiteke. Deskribatu den kasuan, ziztada sakona erabili zen.

Ziztada lehorra honetan datza: gorputzean hainbat orratz mota sartzea (akupunturakoak izan ohi dira), azalaren bidez, substantzia edo fluidorik sartu edo atera gabe, hau da, soilik ziztatzearen estimulu mekanikoa eta estimulu horrek pazientean duen eragina erabilita. Zientifikoki frogatu da ziztada lehorrak



2. irudia: Travell eta Simons-etik hartutako irudia.

mina murrizten duela eta kostu/eraginkortasun harreman ona duela.

Infiltrazioen eraginkortasuna aipatzen duten lehen ikerketak 1941. urtekoak dira (6). Halaber, berrikuspen sistematiko baten emaitzek adierazten dute ziztada lehorra esku-hartze eraginkorra izan daitekeela min muskuloeskeletikoa duten pazienteekin; hala, metodo hori epe laburrean eraginkorragoa da, kontrol-taldearen aldean edo gezurretako ziztada lehorra erabilita (7).

Jarraian, ziztada lehorra zein giharretan erabili zen aipatuko dugu. Gogoratu beharra dago teknika hau erabiltzeko pazienteak egingo denaren berri izan behar duela eta baimena emateko agiria

sinatu behar duela.


Muskulu semitendinosoa, semimembranosoa eta biceps femoral (2. irudia).

- Funtzioa: aldakaren luzapena eta barne errotazioa (semitendinosoa eta semimembranosoa), eta belaunaren flexioa. Bicepsak barne errotazioa errazten du belauna luzatuta dagoenean.
- Mina: mina hedatu egiten da gluteo inguruko mutur kaudalera eta gluteoko tolesdurara, irradiazio nagusi gisa. Horrez gain, izterraren atzealdean eta inguru medialean ere mina sentitzen da, baita hutsune popliteoko erdi medialean eta zango-mamian ere.
- KPMak aktibatu eta betikotzea: gaitz zorroztz eta errepikakorra, ohean denbora luzez atsedean hartzea, belaunak tolestuta, denbora luzez eserita egotea.


Faszia lataren tenkatzailea (3. irudia)

- Funtzioa: aldakaren tolestea, urrunketa eta barne errotazioa; gainera, belauna egonkortzen laguntzen du.
- Mina: beheko trokanterra. Mina ematen du izterraren aldetik hasi eta belauneraino.
- KPMak aktibatu eta betikotzea: aldapan gora korrika egitea, altuera handi batetik erortzea, hanka labur faltsua, etengabeko aldakaren flexioa.






3. irudia: Travell eta Simons-etik hartutako irudia.



5. irudia: Travell eta Simons-etik hartutako irudia.

Gastroknemioak (4. irudia)

